

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Haur eta Lehen Hezkuntzan aurrez izena emateko epea datorren astelehenean, hilak 9, zabalduko da

2015/16 ikasturtean frantseseko irakaskuntza estreinakoaz emango da Vázquez de Mella ikastetxean, eta ingeleseko programa beste hamasei zentrotara zabalduko da

Viernes, 06 de febrero de 2015

Haur eta Lehen Hezkuntzako etapetan 2015-16 ikasturtean aurrez izena emateko epea datorren astelehenean, otsailak 9, zabalduko da eta ostiralean, hilak 13, amaitu. Hala adierazi du gaur goizean Hezkuntzako kontseilari José Iribasek, matrikulazio-egutegiaren eta ikasturte berrirako berrikuntzen aurkezpenean.



Ikasleak gelan.

Aurtengo [kanpainaren](#) leloa "Gehien axola dizun horretan aukeratu ahal dezazun" da, eta kanpainak hezkuntzako eskaintza zabala ezagutarazten du, gaztelaniaz eta euskaraz, ingeles, frantses eta alemaneko programa elebidunekin; programa horiek guztiak familien esku uzten dira gehien gogoko dutena hauta dezaten.

Ikasturteko berrikuntza nagusiak hizkuntzetan oinarrituko dira, hain zuzen. [Frantseseko irakaskuntza elebiduna ezarriko da Vázquez de Mella ikastetxean](#), eta ingeleseko irakaskuntza-programa (PAI) beste hamasei ikastetxetara zabalduko da, 107 izango dira guztira, legealdiaren hasieran zeudenak baino ia lau aldiz gehiago.

Eskolatzeko kanpaina

Eskolatzeko kanpaina gaur egun Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasketak egiten dituzten 60.353 ikasleen familiei begira prestatu da, bai eta Nafarroako hezkuntza-sisteman estreinakoaz matrikulatuko direla uste den 6.700 haur ingururi ere.

Nolanahi ere, aurrez izena eman beharko dute soilik lehen aldiz beren seme-alabak eskolatu behar dituzten familiek (ikastetxe publikoan edo itunpekoan), edo seme-alabak ikastetxez aldatu nahi dutenek. Ez da beharrezkoa inolako harrera-prozedurarik ikastetxe berean jarraitzen duten ikasleentzat edo esleipen hutsagatik beste batera doazenentzat.

Familiek gehienez ere hiru aukera jarri beharko dituzte, eta

inprimakiak lehen aukera moduan jarritako ikastetxean aurkeztu, otsailaren 9tik 13ra. Haurren % 97 baino gehiago gurasoek lehen aukera moduan hautatutako ikastetxean matrikulatzen da, Hezkuntza kontseilariak azpimarratu duenez.

Epeei eta dokumentazioari buruzko informazio guztia Foru Gobernuaren [zerbitzu-katalogoan](#) dago. Aurten, gainera, aplikazio informatiko bat martxan jarri da eta, hari esker, [gailu mugikorretatik Nafarroako ikastetxeetako direktorioan sar daiteke](#); eskaintza eta kokaguneari buruzko informazio zehatza aurki daiteke bertan, eta aplikazio hori doan deskarga daiteke Hezkuntzako [webgunetik](#).

Berrikuntzak hizkuntzetan

Hizkuntzen arloan, aipagarria da Iruñeko Vázquez de Mella ikastetxean frantseseko irakaskuntza elebiduna ezarriko dela; haren izendapen ofiziala aldatu da, eta orain "Bayonne-Vázquez de Mella" du izena. Programa hori abian jartzen duen lehen ikastetxe publikoa izango da, Iruñeko Paderborn-Víctor Pradera ikastetxearen antzera baina, azken horretan, alemana da komunikazio-hizkuntza.

Gainera, ingeleseko irakaskuntza-programa (PAI) beste hamasei zentrotara zabalduko da; haietatik zortzi publikoak dira eta beste hainbeste, itunpekoak. Datorren ikasturtean, hiru urtetik aurrerako haurrekin hasiko dira.

Sare publikoan, honako ikastetxe hauetan ezarriko da: Arguedasko Sancho Ramírez; Arroizko ikastetxea; Castejongo Dos de Mayo; Fontellasko Virgen del Rosario; Murchanteko Mardones eta Magaña; Iruñeko Bayonne-Vázquez de Mella (gaiak gaztelaniaz eta frantsesez ematen dira, baina baita ingelesez ere); Pitillasko ikastetxea eta Ribaforadako San Bartolome.

Gainera, ondorengo itunpeko zentroetara zabalduko da: Altsasuko Jesusen Bihotza; Lizarrako Santa Ana; Iruñeko Santísimo Sacramento, Cardenal Larraona, Santa Teresa de Jesús-Teresianas, Nuestra Señora del Huerto eta Santo Tomás-Dominicas; eta Tuterako La Anunciata.

Arlo horretako berrikuntzak osatuko dira, laster batean irakasleek hizkuntzak ikasteko izango duten autoikaskuntza-plataforma batekin (online); ingelesa, frantsesa, alemana eta euskara ikasteko materiala erabiliko dute. Gutxienez 2.000 irakaslek baliatu ahalko dituzte hizkuntz baliabide horiek, Iribas kontseilariak aurreratu duenez.

Beste zenbait berrikuntza

Datorren ikasturtean amaituko da LOMCEren ezarpena Lehenengoko etapan. Horrek ekarriko du, besteak beste, atzerriko bigarren hizkuntza baten ezarpena Lehen Hezkuntzako laugarren mailara aurreratzea, eta ebaluazio bat izatea hirugarren mailan, hainbat eratako zailtasunak dituzten ikasleentzat egokitutako probak izango dituen (TDAH, Ta edo desgaitasuna).

Gainera, etapa honetan, bihotz eta biriketako erreskateko irakaskuntzak emango dira, bai eta bide-heziketakoak ere.

Beste berrikuntza bat [Código 21](#) proiektua Lehen Hezkuntzako laugarren mailara zabalduko dela da. Nafarroako 90 ikastetxeetako bosgarren mailako ikasleekin aurten ezarri den ekimen honek, honako hau erakutsi nahi die ikasleei: programa informatikoak diseinatzeko erabilitako lengoia (software) eta robotikako aplikazioak. Proiektu hori gauzatzeko, Hezkuntzak zenbait gida jarri ditu irakasleen esku.

Halaber, [Lehen Hezkuntzako ikasleen ohitura eta balioen garatze-mailaren adierazle-sistema](#) aplikatzeko lehen urtea izango da. Sistema horrek parametroak aztertu eta errazten ditu eskola-bizikidetzak, lana eta ikasketa, norberaren ongizatea eta familiarena eta konpromiso soziala sustatzen dituzten jokabideak neurtzeko. Lehen urte honetan, hamar zentrotan lagin bat egin nahi da. Gainera, Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat berriazko beste dokumentu bat egingo da.

Azkenik, irakurmenean, AbiesWeb programa berria Haur eta Lehen Hezkuntzako eskoletako liburutegiaren % 50ean gutxienez ezarriko da, eta ["Bikoteka irakurtzen dugu" programa](#) zabalduko da. Gainera, "Bikoteka idazten dugu" programa berria hasiko dela aurreikusita dago.

Unibertsitatearen aurreko irakaskuntza, zifretan

2014-2015 ikasturte honetan, 106.373 ikasle matrikulatuta daude unibertsitate aurreko irakaskuntzetan (111.911 guztira, 0-3 urte arteko 5.538 haurrak sartzen badira). Haietatik, 68.620 ikasleri ikastetxe publikoetan emango zaie arreta, eta 37.753ri, itunpeko ikastetxe pribatuetan.

Ikastetxe publikoetan dauen ikasleak honako era honetan banatzen dira: Haur Hezkuntza, 12.662; Lehen Hezkuntza, 25.406; DBH, 16.317; Batxilergoa, 6.039; 7.856 Lanbide Heziketako programetan eta 340 Hezkuntza Berezia.

Bestalde, itunpeko zentroetan, 7.369 ikasle daude matrikulatuta Haur Hezkuntzan; 14.916, Lehen Hezkuntzan; 10.127, DBHn; 2.979, Batxilergoan; 2.145, Lanbide Heziketako programetan, eta 217, Hezkuntza Berezia.